Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4811

AGINDUA, 2009ko abuztuaren 7koa, Kulturako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2009ko diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duena.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du.

Aipatu dekretuaren 5. artikuluan adierazten denez, araututako diru-laguntzetara biltzeko deialdia urtean urteko ekitaldi ekonomikoan egin eta jakinaraziko da, Kulturako sailburuaren agindu bidez. Deialdi honetan zehaztuko dira konbokaturiko diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontuko zuzkidura, aurkeztutako programak edo jarduerak burutzeko epea, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, entitate eskatzaile orok aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta, azkenik, kasuan kasu esleitutako diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aipatutako dekretuan xedatzen denarekin bat etorriz, agindu honetan zehaztuko dira kontu horiek guztiak, aipatutako arauan ezarritako diru-laguntzetarako deialdia 2009ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea hauxe da: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2009ko diru-laguntzetara biltzeko dei egitea. Diru-laguntza horiek emateko modua irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak arautzen du.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Agindu honek konbokaturiko 2009ko diru-laguntzei aurre egiteko hirurehun eta berrogeita hamar mila (350.000) euroko zenbatekoa erabiliko da.

2.– Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuaren xedapen gehigarrietako lehenak dioenari jarraituz, izendatutako guztizko diru-zenbatekoa aldatu ahal izango da eskatutako laguntza guztien zenbatekoa kontuan izanda eta eskabideak ebatzi aurretik, Kultura Sailean beste egitarau batzuk egin ondoren ahitu gabe geratutako aurrekontuko diru erabilgarriaren arabera. Aipatutakoaren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4811

ORDEN de 7 de agosto de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se convocan para el año 2009 subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, regula la concesión de subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El artículo 5 del mencionado Decreto establece que anualmente, mediante Orden de la Consejera de Cultura, se convocarán las ayudas reguladas en mismo, concretándose en aquélla las cuestiones relativas a la dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas convocadas, al plazo de ejecución de los programas o actividades presentados, al lugar y los plazos para la presentación de las solicitudes, a la documentación a aportar por las entidades solicitantes y, por último, al plazo y la documentación a aportar para la justificación de la ayuda concedida.

Conforme a lo dispuesto en el referido Decreto, mediante la presente Orden se concretan dichas cuestiones para la aplicación durante el ejercicio 2009 de la convocatoria de ayudas establecida por la norma mencionada.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es la convocatoria para el año 2009 de subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones dependientes orgánicamente de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco, reguladas en el Decreto 164/2008, de 30 de septiembre.

Artículo 2.– Dotación económica.

1.– Para el ejercicio 2009, la dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas convocadas por la presente Orden es de trescientos cincuenta mil euros (350.000).

2.– Conforme a lo dispuesto por la Disposición Adicional Primera del Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, a la vista de la cuantía total de las ayudas solicitadas, el crédito anteriormente podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con

berri eman beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Kulturako sailburuaren ebazpen baten bitartez.

3. artikulua.– Programak edo jarduerak burutzeko epea.

Agindu honen babesean aurkeztuko diren programak edo jarduerak 2009ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira nahitaez.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Agindu honen babesean eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, aginduak ondorioak izan eta egun horretatik kontatzen hasita.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko tokia eta modua.

1.– Eskabideak, I. eranskineko ereduari jarraituz beterikoak eta dokumentazio osagarriarekin batera, Zerbitzu zuzendariari zuzenduta aurkeztu behar dira. Aurkezteko tokiak honakoak dira:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Erregistroa: Donostia kalea 1 - Lakua I, 2. solairua - 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokor Nagusia: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

c) Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Kale Nagusia 85 – 48001 Bilbao.

d) Eusko Jaurlaritzaren Donostia-San Sebastiáneko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Andia kalea 13 - 20004 Donostia-San Sebastián.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren beste erregistro orokor nagusi eta laguntzaileak: 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa (2008ko maiatzaren 30eko EHAA, 102. zk.).

2.– Eskabideak zuzenean entrega daitezke edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (hemendik aurrera, AJL-APE) azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako edozein bide erabiliz. Posta-bulegoan aurkeztu nahi izanez gero, eskabide-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da, posta-funtzionarioak, ziurtapena egin baino lehen, data eta zigilua jarri diezazkion eskabide-orriari.

6. artikulua.– Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Aurretiazko argibideak:

a) Entitateak diru-laguntza eskaera bat baino gehiago eginez gero, hari buruzko dokumentazioa eskabide bakar batekin baino ez da aurkeztu beharko.

carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Orden de la Consejera de Cultura que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 3.– Plazo de ejecución de los programas o actividades.

Los programas o actividades para los que se solicite subvención al amparo de la presente Orden, deberán, en todo caso, realizarse entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2009.

Artículo 4.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes al amparo de la presente Orden será de un mes a partir de que la misma surta efectos.

Artículo 5.– Lugar y modo de presentación de solicitudes.

1.– Las solicitudes, que se ajustarán al modelo que se publica como anexo I a la presente Orden, junto a la documentación complementaria, deberán dirigirse al Director de Servicios del Departamento de Cultura, pudiendo presentarse en los sitios siguientes:

a) Registro del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - Lakua I, 2.ª.planta - 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Registro General Central del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

c) Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Bilbao: c/ Gran Vía 85 – 48001 Bilbao.

d) Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Donostia-San Sebastián: c/ Andia 13 - 20004 Donostia-San Sebastián.

e) Otros registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Decreto 72/2008, de 29 de abril, BOPV n.º 102 de 30 de mayo de 2008).

2.– Las solicitudes pueden entregarse bien directamente, bien utilizando cualquiera de los procedimientos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en lo sucesivo LRJ-PAC). En el caso de optarse por presentar la solicitud en una oficina de correos, deberá realizarse en sobre abierto para que el impreso de solicitud sea sellado por el/la funcionario/a de correos antes de certificarla.

Artículo 6.– Documentación a aportar junto con el impreso de solicitud.

1.– Observaciones preliminares:

a) En el supuesto de que la entidad realizara conjuntamente más de una solicitud de subvención, la documentación relativa a aquélla tan sólo deberá presentarse acompañando a una cualquiera de las mismas.

b) 2.a), 2.c) eta 2.g) apartatuetan eskatutako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku baldin badago, ez da berriz ere aurkeztu behar, hala ezarrita baitago azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legearen 35.f artikuluan.

Kasu honetan, entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak aitorpen bat egin behar du, non adieraziko baitu dokumentazio hori indarrean dagoela eta, baita ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean noiz eta zein organotan edo bulegotan aurkeztu zen edo, hala badagokio, eman zen.

2.– Entitate eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

a) Entitatearen eraketa-aktaren eta estatutuen fotokopia.

b) Entitatea dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri gaurkotua.

c) Entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

d) Eskabidea izenpetzen duen pertsona fisikoaren ordezkapena indarrean dagoela adierazten duen agiria. Egiaztatzea ahalordetze-eskrituraren fotokopiaren bidez egingo da edo, hala badagokio, eskumena duen organoak berariaz emandako egiaztagiriaren bidez.

e) Kasuan kasu alderdi politikoa ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako ziurtagiria, non berak ordezkatzen duen alderdi politikoarekiko entitatearen mendekotasun organikoa egiaztatuko baitu bai eta fundazio zein elkarte eskatzailea diru-laguntzaren jasotzaile izendatuko duen ere.

f) Entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitorpena, non honako hau adieraziko baitu: alde batetik, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentu ororen egiazkotasuna eta, bestetik, entitateak ez duela zigor administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

g) Entitatearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia egiaztatzen duen txartelaren fotokopia.

f) Entitatea zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duten ziurtagiriak, kasuan kasu eskumena duen organoak emana. Gehienez, eskabidea aurkezten den baino hiru hilabete lehenagokoak izango dira. Dena den, jardunbideak edo prozedurak irauten duen bitartean eska dakizkiokeen beste ziurtagiri aurkeztu beharko ditu entitate eskatzaileak.

b) Cuando la documentación exigida en los apartados 2.a), 2.c) y 2.g) se halle en poder de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC), aquélla no será necesario volver a presentarla.

En este caso, se deberá aportar declaración realizada por la persona física que ostenta la representación legal de la entidad, haciéndose constar en la misma que dicha documentación se halla plenamente vigente y detallándose la fecha y el órgano o dependencia de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi en que fue presentada o, en su caso, emitida.

2.– Documentación relativa a la entidad solicitante:

a) Fotocopia del acta fundacional y de los estatutos.

b) Certificación actualizada acreditativa de la inscripción de la entidad en el registro público correspondiente.

c) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona física que ostenta la representación legal de la entidad.

d) Acreditación de la representación legal de la entidad que ostenta la persona firmante de la solicitud a la fecha de la presentación de la misma, bien mediante copia de la escritura de apoderamiento bien mediante certificación expedida al efecto por el órgano correspondiente.

e) Certificación expedida por la persona física que ostente la representación legal del partido político, acreditando la dependencia orgánica de la asociación o fundación para con éste y designando a la asociación o fundación solicitante como perceptora de la subvención.

f) Declaración jurada realizada por la persona física que ostenta la representación legal de la entidad solicitante respecto de la veracidad de todos los documentos presentados y manifestando que la entidad a la que representa no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, incluidas las sobrevenidas por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

g) Fotocopia de la tarjeta acreditativa del Número de Identificación Fiscal de la entidad.

h) Certificación actualizada acreditativa de hallarse al corriente en el pago de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. Ambas deberán estar expedidas por el órgano competente en los tres meses anteriores al de la presentación de la solicitud. En todo caso, la entidad solicitante estará obligada a presentar cuanta documentación se le requiera mientras dure el procedimiento.

3.– Garatu nahi den programa edo jarduerari buruzko dokumentazioa:

a) 2009an garatzekoa den programa zertan datzan adierazten duen memoria, ahalik eta xehatuena, zeinak, gutxienez, honako aspektu hauek zehaztu beharko baititu:

a.1.– Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegitik zein kulturalarenetik programaren interesa (arrazoitu).

a.2.– Entitatearen ibilbidea, giza ezarpenaren maila eta hizkuntza politika (arrazoitu).

a.3.– Programaren onuradun-unibertsoa (arrazoitu).

a.4.– Programaren edo jardueraren lurralde-eragina (arrazoitu).

a.5.– Web orriaren ezaugarriak (baldin eta horrelakorik balego): xede-publikoa (berariaz zuzendutako pertsonak edo jende-taldeak zein kolektiboak), edukien egitura eta horien eguneratzea, zerbitzuak eta horien doakotasuna eta, azkenik, erabilitako hizkuntzak.

b) Programaren edo jardueraren exekuzio-egutegia, posible bada, kronograma baten bitartez adierazita.

c) Programaren edo jardueraren aurrekontu zehatza eta xehatua, zeinak, hala badagokio, programak edo jarduerak burutzeari zuzen eta estu loturiko funtzionamendu-gastuak bere baitan hartuko dituen eta eskaera egin duen entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetua.

c.1.– Aurrekontuak orekatua beharko du izan, hots, gastuak berdin diru-sarrerak, eta diru-sarreren atalean honako datu hauek zehaztu beharko dira:

c.1.1.– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila kanpoan utzita, xede berberaz diru-laguntza(k) eskatu zai(zki)en edo, hala badagokio, eskatu asmo zai(zki)en nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuen zerrenda zehatza.

c.1.2.– Aurreko paragrafoan aipaturiko herri administrazioei edo entitateei eskatutako diru-kopurua edo, besterik ezean, kasuan kasu jasotzea espero dena.

c.1.3.– Diru-laguntza guztien egoera (eskatzekoa, ebazpenaren zain, esleituta, ea.).

c.1.4.– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

c.2.– Eskabidea aurkezten den egunerako beste diru-laguntzarik eskatu ez bada edo hura aurkeztu ondoren beste diru-laguntzarik eskatzeko asmorik ez badago, hori horrela dela zinpeko aitorpen bidez adierazi beharko da. Aitorpena eskaera egiten duen entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetu beharko du.

d) Aurkeztutako programa edo jarduera hobeto baloratu ahal izateko, eskaera egiten duen entitateak

3.– Documentación relativa al programa o actividad a desarrollar.

a) Memoria lo más detallada posible relativa al programa desarrollar en el ejercicio 2009, haciendo mención, como mínimo, a los siguientes aspectos:

a.1.– El interés del programa desde el punto de vista del desarrollo del pensamiento político y social así como desde el del ámbito cultural (argumentar).

a.2.– La trayectoria, implantación social y política lingüística de la entidad (argumentar).

a.3.– Universo potencialmente beneficiario directo del programa o actividad (argumentar).

a.4.– Repercusión territorial del programa o actividad (argumentar).

a.5.– Características de la página web (si la hubiera): Público objetivo (personas o colectivos a las que específicamente está dirigida), estructura de contenidos y actualización de los mismos, servicios y gratuidad de los mismos e idiomas.

b) Calendario de ejecución del programa o actividad, a ser posible mediante un cronograma.

c) Presupuesto desglosado y detallado del programa o actividad, incluyendo, si hubiera lugar, los gastos de funcionamiento vinculados directamente con la ejecución del mismo, y debiéndose firmar por la persona física que ostente la representación legal de la entidad solicitante.

c.1.– Habrá de ser equilibrado, es decir, gastos igual a ingresos, debiéndose precisar en el apartado de ingresos:

c.1.1.– Relación exhaustiva de las administraciones o entidades, ya sean públicas o privadas, nacionales o internacionales, diferentes al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a las que se han solicitado subvenciones – o, en su caso, se tenga previsto solicitar – para el mismo objeto.

c.1.2.– El importe solicitado a las mencionadas administraciones o entidades o, en su defecto, el importe que en cada caso se prevea percibir.

c.1.3.– El estado de las solicitudes (a solicitar, pendiente de resolución, concedida, etc.).

c.1.4.– El importe solicitado al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

c.2.– En el supuesto de no haberse solicitado ninguna otra subvención a la fecha de presentación de la solicitud o no tener previsto solicitar ayuda alguna con posterioridad a la misma, habrá de presentarse declaración jurada acreditativa de tal extremo suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad solicitante.

d) Voluntariamente podrá adjuntarse cualquier otra documentación que la entidad solicitante entienda que

egokitzat jotzen duen nahi beste dokumentazio osagarri ere erantsi dezake.

Dena dela, aurkeztutako programa edo jarduera(k) hobeto baloratze aldera, Zerbitzu Zuzendaritzak edo Balorazio Batzordeak informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango diete entitate eskatzaileei.

4.– Ordainketa egiteko dokumentazioa:

a) Banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-entitateak) emandako edo ziurtatutako dokumentua-edo, zeinek, gutxienez, honako datuak jasoko baititu:

a.1.– Banku-erakundearen izena.

a.2.– Banku-erakundearen helbidea.

a.3.– Kontuaren zenbakia (20 digitu).

a.4.– Kontuaren titularra.

Aipaturiko dokumentua-edo segituan aipatzen den interneteko helbidean aurkitu daitekeen «Datuen Alta/Doakion Interesatua» inprimakiaz (egoki beteta eta bertan eskatzen den dokumentazioaz lagunduta) ordezkatu daiteke (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/adjuntos/tercero_2.pdf).

7. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko epea.

Esleitutako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko bi hilabeteko epea egongo da, diruz lagundutako programa edo jarduera bukatzen den egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, 2010eko otsailaren 28a baino lehen zuritu beharko da.

8. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

1.– Justifikazioak, II. eranskineko ereduari jarraituz beterikoak, dokumentazio osagarriarekin batera, Zerbitzu zuzendariari zuzenduta aurkeztu behar dira. Aurkezteko tokiak honakoak dira:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Erregistroa: Donostia kalea 1 - Lakua I, 2. solairua - 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokor Nagusia: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

c) Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Kale Nagusia 85 – 48001 Bilbao.

d) Eusko Jaurlaritzaren Donostia-San Sebastiáneko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Andia kalea 13 - 20004 Donostia-San Sebastián.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren beste erregistro orokor nagusi eta laguntzaileak: 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa (2008ko maiatzaren 30eko EHAA, 102. zk.).

sea pertinente para la mejor valoración del programa o actividad presentado.

En todo caso, la Dirección de Servicios y/o la Comisión de Valoración podrá(n) requerir a las entidades solicitantes cuanta información y documentación complementaria estime(n) necesaria en orden a la valoración del programa o actividad presentado.

4.– Documentación para el libramiento de pagos:

a) Documento o similar expedido y/o certificado por la correspondiente entidad bancaria (banco o entidad de ahorro) en el que, mínimamente, figuren los siguientes datos:

a.1.– Denominación de la entidad bancaria.

a.2.– Dirección de la entidad bancaria.

a.3.– Número de cuenta (20 dígitos).

a.4.– Titular de la cuenta.

El mencionado documento puede ser sustituido por el anexo «Alta de terceros» que figura en la dirección http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html debidamente cumplimentado y aportando la documentación requerida en el mismo.

Artículo 7.– Plazo de justificación de la subvención.

El plazo para la presentación de la documentación acreditativa de la justificación de la subvención otorgada será de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del programa o actividad subvencionado y, en todo caso, no posterior al 28 de febrero de 2010.

Artículo 8.– Lugar y modo de presentación de las justificaciones.

1.– Las justificaciones, que se ajustarán al modelo que se publica como anexo II a la presente Orden, junto a la documentación complementaria, deberán dirigirse al Director de Servicios del Departamento de Cultura, pudiendo presentarse en los sitios siguientes:

a) Registro del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - Lakua I, 2.ª planta - 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Registro General Central del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

c) Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Bilbao: c/ Gran Vía 85 – 48001 Bilbao.

d) Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Donostia-San Sebastián: c/ Andia 13 - 20004 Donostia-San Sebastián.

e) Otros registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Decreto 72/2008, de 29 de abril, BOPV n.º 102 de 30 de mayo de 2008).

2.– Justifikazioak zuzenean entrega daitezke edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (hemendik aurrera, AJL-APE) azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako edozein bide erabiliz. Posta-bulegoan aurkeztu nahi izanez gero, justifikazio-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da, posta-funtzionarioak, ziurtapena egin baino lehen, data eta zigilua jarri diezazkion eskabide-orriari.

9. artikulua.– Justifikazio-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diruz lagundutako programa edo jardueraren gaineko memoria, ahalik eta zehatzena, non haren exekuzioa, betetze-maila eta ebaluazioa ere jaso behar baitira.

2.– Diruz lagundutako programa edo jardueraren behin betiko exekuzio-aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta zehatzena, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitorpen bidez.

a) Aurrekontuak orekatua beharko du izan, hots, gastuak berdin diru-sarrerak, eta diru-sarreren atalean honako datu hauek, besteak beste, zehaztu beharko dira:

a.1.– Entitate onuradunaren behin betiko diru-ekarpena.

a.2.– Xede berberaz nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuen diru-ekarpenak.

a.2.1.– Diruz lagundutako programa edo jarduera burutzeko entitate onuradunak Kultura Sailak emandakoaz gain bestelako laguntzarik edo diru-laguntzarik jaso ezik, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitorpena ere aurkeztu beharko da, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetua.

a.3.– Kultura Sailak esleitutako diru-laguntza.

a.4.– Beharrezkoa izanez gero, aurrekontu-oreka lortze aldera, entitate onuradunak jarritako diru-kopuru osagarria, zeina entitate onuradunak metatutako defizit gisako zenbatekotzat hartuko baita.

3.– Diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzioa dela-eta ordaindutako nomina oro edota sortarazitako gastuen faktura edo ordainagiri oro jasotzen dituen zerrenda ulergarria, III. eranskineko ereduari jarraituz osatua. Zerrendari honako hau erantsi beharko zaio: entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitorpena, non, berariaz, adieraziko baita zerrendatutako nominetako, fakturetako zein ordainagirietako bakoitzak esleitutako diru-laguntzaren objektuarekin edo xedearekin zerikusi zuzena duela.

2.– Las justificaciones pueden entregarse bien directamente, bien utilizando cualquiera de los procedimientos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en lo sucesivo LRJ-PAC). En el caso de optarse por presentar la justificación en una oficina de correos, deberá realizarse en sobre abierto para que el impreso correspondiente sea sellado por el/la funcionario/a de correos antes de certificarla.

Artículo 9.– Documentación a aportar junto con el impreso de justificación de la subvención.

1.– Memoria detallada y lo más amplia posible relativa a la ejecución, grado de cumplimiento y evaluación del programa o actividad subvencionado.

2.– Mediante declaración jurada, suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad beneficiaria, presupuesto definitivo de ejecución (gastos e ingresos) del programa o actividad subvencionado, lo más desglosado posible.

a) El presupuesto deberá ser equilibrado, es decir, gastos igual a ingresos, incluyendo, entre otros, en este último apartado:

a.1.– La aportación definitiva de la entidad beneficiaria.

a.2.– Las aportaciones de otras administraciones o entidades, ya sean públicas o privadas, nacionales o internacionales, para la ejecución del mismo programa o actividad.

a.2.1.– En el caso de que la entidad beneficiaria no hubiera recibido ayuda o subvención alguna diferente a la del Departamento de Cultura para la ejecución del programa o actividad subvencionado, se deberá adjuntar declaración jurada efectuada a tal efecto suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad beneficiaria.

a.3.– La subvención otorgada por el Departamento de Cultura.

a.4.– Si fuera necesario, en orden a alcanzar el equilibrio presupuestario, la aportación extra realizada por la entidad beneficiaria, aportación que será considerada a todos los efectos como déficit acumulado por la entidad beneficiaria.

3.– Relación comprensiva de todas las nóminas y facturas o recibos de los gastos efectuados con motivo de la ejecución del programa o actividad subvencionado, de acuerdo con el modelo del anexo III, acompañando aquélla de una declaración jurada suscrita por la persona que ostenta la representación legal de la entidad beneficiaria, en la que se señalará expresamente que todos y cada uno de los gastos relacionados se corresponden con el objeto de la subvención concedida.

Salbuespen gisa, eskabide-orriarekin batera aurkeztutako hasierako gastu-aurrekontua 100.000 eurotik gorakoa izaten denean, diru-muga hori iritsi arteraino-ko gastuen zerrendaketa baino ez da aurkeztu beharko.

Dena dela, exekutatutako gastu osoa estaldu arteko gainontzekoen zerrenda Zerbitzu Zuzendaritzaren esku jartzeko konpromisoa beren gain hartzen dute entitate onuradunek.

4.– Diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzioa dela-eta ordaindutako nominak edota sortarazitako gastuen faktura edo ordainagiriak, diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontu osoaren pareko zenbatekoari dagozkionak. Kasuan kasuko hirugarren interesdunari egin beharreko ordainketa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentu edo agiriren bat fakturarekin zein ordainagiriarekin batera aurkeztea nahitaezko baldintza da.

Eskuarki, gastu-justifikantetzat hartzen diren dokumentu edo agiriak nominak eta fakturak edo ordainagiriak dira. Horiek guztiek, baliozkoak izateko, enpresarioek eta profesionalek fakturak egin eta emateko beharra arautzen duen eta indarrean dagoen araudi fiskalak ezartzen dituen baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuen kontura egiten den finantzazioak diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontuaren % 50a gainditzen ez badu, ordaindutako nominak edota programa edo jardueraren exekuzioak sortarazitako gastuen egiaztagiriak ere aurkeztu beharra dagoen arren, horiek, salbuespen gisa, esleitutako diru-laguntzaren pareko zenbatekoari dagozkionak baino ez dira izan behar.

Dena dela, Zerbitzu Zuzendaritzak hala eskatzen badu eta betiere esleitutako diru-laguntza behar bezala justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea bukatu eta handik hiru hilabeteko epean, exekutatutako gastu osoa estaldu arteko gainontzeko gastuen egiaztagiriak Zerbitzu Zuzendaritzaren esku jartzeko konpromisoa beren gain hartzen dute entitate onuradunek.

Gastuen egiaztagiriak aurkezteko moduari dagokionez, jatorrizkoak besterik ez dira onartuko, edo besterik ezean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo dagokion Lurralde Historikoko Kulturako Lurralde Zerbitzuak konpultsatutako fotokopiak.

5.– Diruz lagundutako programa edo jarduera dela-eta sortutako material orotatik bina ale –hizkuntza-bertsio guztietan eta euskarri fisiko, optiko nahiz magnetikoan–, zeinetan, aipamen baten bitartez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dela adierazi beharko baita. Aipamena euskaraz egin beharko da edo, besterik ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

Excepcionalmente, y cuando el presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención sea superior a los 100.000 euros, deberá presentarse una relación tan sólo por una cuantía equivalente al importe anterior.

No obstante, las entidades beneficiarias asumen el compromiso de poner a disposición de la Dirección de Servicios la relación de gastos restantes que cubran el importe total del gasto ejecutado.

4.– Justificantes de gastos originados con motivo de la realización del programa o actividad subvencionado por una cuantía equivalente al importe total del presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención, justificantes que, obligatoriamente, deberán ir acompañados de la documentación acreditativa de haberse efectuado el libramiento del pago a favor del tercero interesado en cada caso.

Los documentos que tienen la consideración de justificante de gasto son, fundamentalmente, las nóminas y facturas o recibos, debiendo éstas últimas reunir los requisitos establecidos por la normativa fiscal en vigor, que regula el deber de expedición y entrega de facturas que incumbe a empresarios y profesionales.

Excepcionalmente, y cuando la financiación con cargo a los presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco no supere el 50% del presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención, deberán presentarse justificantes de gastos originados con motivo de la realización del programa o actividad subvencionado tan sólo por una cuantía equivalente al importe de la subvención concedida.

No obstante, cuando la Dirección de Servicios así lo requiera, y siempre dentro del periodo de tres meses contados a partir de la finalización del plazo para la presentación de la documentación acreditativa de la justificación de la subvención otorgada, las entidades beneficiarias asumen el compromiso de poner a disposición de aquélla los justificantes de gastos restantes que cubran el importe total del presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención.

En cuanto a la forma de presentación de los justificantes de gasto, tan sólo se aceptarán originales de los mismos o, en su defecto, fotocopia compulsada por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco o el Servicio Territorial de Cultura del Territorio Histórico correspondiente.

5.– Dos ejemplares de las diversas versiones lingüísticas, en soporte físico, óptico y/o magnético, de cada uno de los materiales generados a partir del programa o actividad subvencionado, haciéndose mención en los mismos al patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que deberá figurar en euskera o, en su defecto, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Nolanahi ere, aipamena egiteko konpromiso hori ez dute bete beharko ez burututako programa edo jarduera aurkeztu ondoren diru-laguntzaren bat jasoko duten entitateek ez eta programa edo jarduera burutu ondoren diru-laguntzaren baten onuradunak direla adierazten duen jakinarazpen-idazkia jasoko dutenek ere.

Aipaturiko ale horiek guztiak aurkeztu beharrean, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako aitorpen baten bitartez ordezkatu ahal da, non entitate onuradunak 2009ko ekitaldian sortutako material oro (hizkuntza-bertsio guztietan eta euskarri fisiko nahiz magnetikoan) bere egoitzan gordailuturik dagoela eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ikuskatu zein eskuratu nahi izanez gero, fundazioa bere esanetara jarriko dela adierazi beharko baita.

6.– Diru-laguntzaren bigarren zatiaren ordainketa 2010. urtean egiten bada, aurreko dokumentazioaz gain, entitate onuraduna zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duten ziurtagiriak, kasuan kasu eskumena duen organoak emana.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Diru-laguntzen arloari dagokionez agindu honetan biltzen ez diren alderdi guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezartzen denari jarraituko zaio eta, bestalde, prozedurari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legea aplikatuko da.

Bigarrena.– Agindu honen izapidetza dela-eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak eskuratuko dituen norberaren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko ditu, ondoren erabili ahal izateko, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

Fitxategiko datuok ez zaizkio beste inori lagako eta fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko.

Aipatutako lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko edo kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dira. Horretarako, honako helbide honetara idazki bat bidali beharko da: Zerbitzu Zuzendaritza (fitxategiaren administrazio-organo arduraduna), Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango diote Kulturako

Este compromiso relativo a la mención del patrocinio no afecta a aquellas entidades que resultaran beneficiarias de subvención tras la presentación del programa o actividad ya finalizado ni a aquéllas que recibieran la notificación de concesión de subvención con posterioridad a la realización del programa o actividad.

La presentación de los mencionados ejemplares puede ser sustituida por una declaración jurada suscrita por la persona física que ostenta la representación de la entidad, manifestando en la misma que las diversas versiones lingüísticas, en soporte físico, óptico y/o magnético, de cada uno de los materiales generados a partir del programa o actividad subvencionado se encuentran en depósito en la sede social de la entidad beneficiaria y a disposición del Departamento de Cultura si éste los solicitara.

6.– Si el segundo pago de la subvención se efectuara en el ejercicio 2010, deberá adjuntarse además certificación actualizada acreditativa de que la entidad beneficiaria se halla al corriente en el pago de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– En lo no previsto en la presente Orden en materia subvencional será de aplicación el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y, en materia de procedimiento, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Los datos de carácter personal que con motivo de la tramitación de la presente convocatoria pasen a disposición de la Dirección de Servicios serán incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Si se desea, pueden ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Con-

sailburuari hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abuztuaren 7a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

sejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de agosto de 2009.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

ESKABIDE-ORRIA / *IMPRESO DE SOLICITUD*

EUSKO LEGEBILTZARREAN ORDEZKATUTA DAUDEN ALDERDI POLITIKOEN MENDEKO FUNDAZIO ZEIN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES DESTINADAS A FUNDACIONES Y ASOCIACIONES CON DEPENDENCIA ORGÁNICA DE PARTIDOS POLÍTICOS CON REPRESENTACIÓN EN EL PARLAMENTO VASCO

ESKAERA EGITEN DUEN ENTITATEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

Entitatearen izena: ..... IFZ/*NIF*: .....
Denominación de la entidad.....
Helbidea/*Dirección:* .....
Posta kodea/*Código postal*: .....Herria/*Localidad*.....Probintzia/*Provincia*: .....
Tel.: ..... Eskukoa/*Móvil*: .....Faxa/Fax: .....
Posta elektronikoa/*Correo electrónico* (e-mail): .....
Web orrialdearen helbidea/*Dirección de la página web*: .....

ESKAERA EGITEN DUEN ENTITATEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA IDENTIFIKATZEKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL/ DE LA REPRESENTANTE LEGAL DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

Izen-deiturak/*Nombre y apellidos*: ..... NAN/*DNI* .....
Helbidea/*Dirección*: .....
Posta kodea/*Código postal*: ..... Herria/*Localidad*.....Probintzia/*Provincia*: .....
Tel.: ..... Eskukoa/*Móvil*: .....Faxa/*Fax*: .....
Posta elektronikoa/*Correo electrónico* (e-mail): .....

POSTA BIDEZKO JAKINARAZPEN OFIZIALAK BIDALTZEKO DATUAK
DATOS PARA EL ENVÍO POR CORREO DE LAS NOTIFICACIONES OFICIALES

Helbidea/*Dirección*: .....
Posta kodea/*Código postal*: ..... Herria/*Localidad*.....Probintzia/*Provincia*: .....

HARREMAN-BIDEAK/*CONTACTO*

Izen-deiturak/*Nombre y apellidos*: ..... NAN/*DNI* .....
Tel.: ..... Eskukoa/*Móvil*: .....Faxa/*Fax*: .....
Posta elektronikoa/*Correo electrónico* (e-mail): .....

ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN ZEHAR ERABILTZEKO AUKERATUTAKO HIZKUNTZA
IDIOMA ELEGIDO PARA SU UTILIZACIÓN A LO LARGO DEL PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

Gaztelania/*Castellano*…….☐ Euskara/*Euskera*……..☐

ORDAINKETAK EGITEKO DATUAK/*DATOS PARA EL LIBRAMIENTO DE PAGOS*	
Banketxea edo aurrezki entitatea/*Banco o entidad de ahorro*:	□□□□
Agentzia/*Agencia*	□□□□
KD/*DC*	□□
Kontu zk./*N.º cuenta*	□□□□□□□□□□

DIRU-LAGUNTZA JASO NAHIAN AURKEZTUTAKO PROGRAMAREN
EDO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA
BREVE DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA O ACTIVIDAD PRESENTADO PARA SER SUBVENCIONADO

.....
.....
.....
.....
.....
.....

ADOSTASUNA/*CONFORMIDAD*

Inprimaki honetan adierazitako entitatearen legezko ordezkari naizen aldetik, eskabide-orri honetan emandako argibide eta datuak egiazkoak direla adierazten dut eta, orobat, Kultura Sailak 2009 urteko deialdian ezarri dituen baldintzen jakinaren gainean egonik, berauek zuzen betetzeko asmo sendoa adierazten dut./*En representación de la entidad indicada, certifico la veracidad de los datos expuestos en este impreso de solicitud. Asimismo y de conformidad con las condiciones establecidas en la presente convocatoria del Departamento de Cultura para el año 2008, declaro que las acepto y prometo cumplirlas en su totalidad.*

Lekua eta data/*Lugar y fecha* Zigilua/*Sello*

.....(e)n, 200…(e)ko .....ren .....(a)n
En ....., a ..... de ..... de 200….

Legezko ordezkariaren sinadura/*Firma de la persona representante*

KULTURA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE CULTURA

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

EUSKO LEGEBILTZARREAN ORDEZKATUTA DAUDEN ALDERDI POLITIKOEN MENDEKO FUNDAZIO ZEIN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES DESTINADAS A FUNDACIONES Y ASOCIACIONES CON DEPENDENCIA ORGÁNICA DE PARTIDOS POLÍTICOS CON REPRESENTACIÓN EN EL PARLAMENTO VASCO

ENTITATE ONURADUNA/*ENTIDAD BENEFICIARIA*

Entitatearen izena: IFZ/*NIF*.....
Denominación de la entidad
.....

Helbidea/*Dirección*: .....

Posta kodea/*Código postal*: .....Herria/*Localidad*.....Probintzia/*Provincia*: .....

Tel.: ..... Eskukoa/*Móvil*: .....Faxa/*Fax*: .....

Posta elektronikoa/*Correo electrónico* (e-mail): .....

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMA/*PROGRAMA SUBVENCIONADO*

Esp. zk./*Exp. n.º*: APF-200910/__ __ __ __

Diruz lagundutako objektua/*Objeto subvencio*nado: .....
.....
.....
.....
.....

LEGEZKO ORDEZKARIA/REPRESENTANTE LEGAL(1)

Izen-deiturak/*Nombre y apellidos*: ..... NAN/*DNI* .....

Lekua eta data/*Lugar y fecha* Zigilua/*Sello*

.....(e)n, 200…(e)ko .....ren .....(a)n
En ....., a ..... de ..... de 200….

Legezko ordezkariaren sinadura/Firma de la persona representante

OHARRA/*OBSERVACIÓN*

(1): Laguntza-eskabidea aurkezten denetik eta esleitutako diru-laguntza justifikatzen denera bitartean entitate onuradunaren legezko ordezkaria aldatuz gero, hori horrela dela ziurtatzen duen agiriren aurkeztu behar izateaz gai, entitate onuraduna legez ordezkatzeko baimena duen pertsona berriaren NANen fotokopia ere bidali beharko da /*En el supuesto de que en el periodo transcurrido entre la fecha de presentación de la solicitud de subvención y la de justificación de la misma se hubiera producido un cambio en la representación legal de la entidad, deberá, además de acreditarse documentalmente dicha circunstancia, presentarse la fotocopia del DNI de la persona que ha pasado a ostentar la representación legal.*

KULTURA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE CULTURA

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

GASTUEN EGIAZTAGIRIEN ZERRENDA/
LISTADO DE LOS DOCUMENTOS JUSTIFICATIVOS DE GASTO
(1) eta/y (2)

A: Gastuaren egiaztagiriaren ondoz ondoko ordena zk./*N.º de orden correlativo del justificante de gasto (3).*
B: Gastuaren egiaztagiri-mota/*Tipo de justificante de gasto (4).*
C: Gastuaren egiaztagiria identifikatzen duen zk./*N.º identificativo del justificante de gasto.*
D: Gastuaren egiaztagiriaren data/*Fecha del justificante de gasto.*
E: Gastuaren egiaztagiriaren igorlea/*Emisor(a) del justificante de gasto.*
F: Gastuaren egiaztagiriaren kontzeptua eta, hala badagokio, kontzeptuaren azalpena eta xedea ere/*Concepto del justificante de gasto y, si procediera, explicación y destino del mismo.*
G: Gastuaren egiaztagiriaren zenbatekoa (hala badagokio, zergak sartuta)/*Importe del justificante de gasto (si así correspondiera, impuestos incluidos).*

A	B	C	D	E	F	G
					GUZTIRA	

OHARRAK/*OBSERVACIONES*
(1): Bete itzazu kasuan kasu dagozkion laukiak/*Rellénense, las casillas que correspondan en cada caso.*
(2): Lerro gehiago behar izanez gero, jarraitu beste orrialde batean/batzuetan honako eredu hau gidari harturik/*En el supuesto de necesitar más líneas, continúe en otra(s) página(s) utilizando el presente modelo como guía.*
(3): Jar ezazu aurkeztutako gastuen egiaztagirietako bakoitzari dagokion ondoz ondoko ordena-zk./*Ponga a cada uno de los documentos justificativos de gasto el correspondiente n.º de orden correlativo.*
(4):
4.a.– Nomina/*Nómina*.
4.b.– Banketxeek zein aurrezki entitateek egindako ziurtagiri edo zorragatiko kargu-dokumentuak, zeinetan, finantza-erakundeek egindakoak izanik, faktura baten berariazko datuak agertu behar baitira, serie eta zenbakia izan ezik/*Certificaciones o documentos de cargo por adeudamiento bancario que, expedidos por entidades financieras, contienen los datos propios de una factura, a excepción del número y serie.*
4.c.– Banketxeko zein aurrezki kutxako txekearen kopia/*Copia de cheque bancario.*
4.d.– Faktura/*Factura*.
4.e.– Autofaktura/*Autofactura*.
4.f.– Kasuan kasu interesatuak izenpetutako 'Dirua jaso izana'ren agiria/'*Recibí' firmado por el/la tercero/a interesado/a.*
4.g.– Tiketa/*Tique*.
4h.– Esku-dirutan egindako ordainketa/*Pago en mano.*
4i.– Bestelakoak (zehaztu)/*Otros (especificar).*